

ek!

eta kitto!
eusgara elkarteak

2024ko urriak 4 · 1327 zenbakia

EUSKARA ERDIGUNEAN

PROGRESIBOEN HILABETEA

2x189 €

MÓ BETAURREKO PROGRESIBOAK

BATZUK EGUZKITAKOAK IZAN DAITEZKE
MILA MODELO BAINO GEHIAGO

Kontuztatu optikan gainazalaren esangarrietan.



MULTIÓPTICAS

943 20 05 22
Bidebarrieta, 2. EIBAR



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multioplicas.com





IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Dokorea


Odontologian Lizenziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aduas Aho Kirurgian,
Periodontozan, implantologian,
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian,
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua,
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua,
Auztan Institutua, Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza,
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa,
Anibal Alonso Dokorea.

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU


 Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

...eta kitto! Jaia ospatuko dugu bihar eta bertan Zaloa Urain musikari eibartarra omendua izango da. Kokein musika taldeko abeslariak 25 urte bete ditu oholutz gainean eta, euskararen alde lan egiteaz gain, ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean eduki dugu sarritan. Eskerrik asko eta zorionak, Zaloa!



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Elkarte Gastronomikoen argitalpenaren inguruan

Aurrez ere jakinarazi genuen bezala, 1996an ...eta kitto!-k kaleratutako "Eibarko Elkartea Gastronomikoa" argitalpena gaurkotzeko helburuari jarraituz, abenduaren hasieran herriko soziedadeak protagonista izango dituen publikazioa aterako dugu. Orain dela 28 urte egindako bidetik, fitxa antzerkoko betetzea da elkarte guztiei eskatzen dieguna. Bete beharreko datuak errazak dira: elkartearen izena eta nondik datorren, helbidea, sorrera-data, bazkide kopurua, kuota, egun berezia (ospakizun eguna) eta urteroko ekitaldiak. Informazio horri logoa eta talde-argazkia gehituko genizkioke publikazioan.

Uztailaren amaieran ahalegindu ginen lokalizatuta geneuzkan soziedade guztietan horren berri ematen zuen gutuna lagatzen eta uste dugu ez dagoela inor jaso ez duenik. Holakorik balego, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea lehenbailehen, publizitatea@etakitto.eus helbidera edo **605711422** whatsapp zenbakira idatziz.

Badira batzuk dagoeneko euren elkartearen informazioa bidali digutenak, eta badakigu beste asko horretan zabilatzela. Informazio faltaren eraginez, gure aldetik ere ezagutzen dugun jendeari laguntza eskatu diogu kontaktuak egiteko eta baliteke nonbaiten bide bat baino gehiago zabaldu izana. Barkatu horrela bada. Hori bai, informazio hori guztia **urria amaitu baino lehen** jaso beharko genuke, ondoren publikazioa landu ahal izateko. Horregatik, datuak biltzen badiharduzue ere, eskertuko genizueke horretan zabilatzela jakinaraztea. Batez ere, ez molestatzeko larregi. Mila esker, alde zurretik, zuen laguntzarengatik.

...eta kitto!-ko erredakzioa

Hortik esanak



Informazio oso gutxi duten gauzak ulertzeko gaitasun handia dugu gizakiok. Zehaztugabea oso ondo mugitzen gara. Makina batek jakin behar du zer etorriko den une oro; guk ez. Guk ez dugu jakin beharrik. Nola ikasten du ume batek hizkuntza bat? Araurik azaldu gabe, jolasean. Nola ikasten du nagusi batek hizkuntza bat? Inola ere ez. Gure adimena deformatu da, eta arauak behar ditugu. Horrela ikasten den guztia oso gaizki ikasten da. Ondo ikasten den guztia jolasean ikasten da. Makinak entrenatu egiten dira, baina ez dira jolasten.

DANIEL INNERARITY, filosofoa

Gizakiok gure tamainako primate batek izan beharko lukeena baino hiru bider handiagoa den burmuina garatu dugu, eta egitura hori ez dago behar duen potentzia horretarako prestatuta. Burmuinak asko pentsatzen duenez, gorputzak sufridu egiten du, ez dagoelako prestatuta hainbeste fortzatzten duen motor horretarako. Burmuin handi horrekin, gizakiok tximino adimentsu eta triteak bihurtu gara. Itzaropena dut egoera hori gaindituko dugula; baina, aldi berean, nire beldurrik handiena da egoera normalizatzen badugu inoiz ez dugula gaindituko.

EMILIANO BRUNER, paleoneurobiologoa

Glaziarretik zenbat eta urrutirago, orduan eta argalagoa da jendea. Zergatik? Hotza eta gizentasuna, batez ere emakumeengan, oso lotuta daudelako. Orain dela 25.000 urte gizateriak bere bizitzako unerik txarrenari egin behar izan zion aurre: hotza zegoen, ikaragarriko hotza. Emakumezkoek gorputz-koipearen %17 behar zuten hilekoari eusteko eta %22 haurdunaldi onena izateko. Hau da, seme-alabak izan ahal izateko gizenak izan behar ziren. Klima zenbat eta hotzagoa izan, emakumezkoa orduan eta potoloagoa izatea komeni.

FELIX ARES, zientzialaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PARTE → Zati, atal. "Ez zan pozik geratu bere partiagaz".

Albistegia, batez ere irratikoa. "Hiru ta erdietatik aurrera, nahi dozunian etorri. Nik partia entzuten dot: haxe gustatzen jata".

1971-72

Haurrentzako errehabilitazioa

Lehen begi-kolpean beste zerbait iruditu arren, argazkiko haurrak errehabilitazioa egiten ari dira. Gaur egun sendagileek beste baliabide batzuk dauzkate eskura, baina lehenagokoek ere bazekiten zer egin gorputzeko jarrera okerrak zuzentzeko.

FOTOPLAZAOLA



Farmaziak

| |
|---|
| BARIXAKUA 4 |
| EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4) |
| ZAPATUA 5 |
| EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31) |
| DOMEKA 6 |
| EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7) |
| ASTELEHENA 7 |
| EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18) |
| MARTITZENA 8 |
| EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19) |
| EGUAZTENA 9 |
| EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6) |
| EGUENA 10 |
| EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4) |
| BARIXAKUA 11 |
| EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5) |
| GAUEZ BETI, 2024an, Lekunberri (Isasi, 31) |

Telefono jakingarriak

| | |
|--------------------------|-----------------------------|
| SOS deiak | 112 |
| Pegora | 010 |
| Udaletxea | 943 70 84 00 |
| Portalea | 943 70 84 39 |
| Udaltzaingoa | 943 70 84 24 |
| Mankomunitatea | 943 70 07 99 |
| Debegesa | 943 82 01 10 |
| KIUB | 943 20 38 43 |
| Kirol Patronatoa | 943 20 32 40 |
| Epaitegia | 943 03 34 00 |
| Iberdrola | 900 17 11 71 |
| Naturgas | 902 12 34 56 |
| DYA Larrialdiak | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Eibar Ospitalea | 943 03 29 00 |
| Mendaro ospitala | 943 03 28 00 |
| Anbulategia | 943 03 25 00 |
| Torrekua | 943 03 26 50 |
| Errepideak | 902 11 20 88 |
| Ertzaintza | 943 53 17 00 |
| Eusko Tren | 944 33 33 33 |
| Lurraldebus | 900 30 03 40 |
| Pesa | 900 12 14 00 |
| Taxiak | 943 20 30 71 / 943 20 13 25 |
| Andretxea | 943 54 39 38 |
| Alkohol. Anon. | 629 14 18 74 |
| Al-Anon / Alateen | 650 26 59 63 |
| Grupo Egun Bat (Jokozale | |
| Anonimo eta Familiak) | 699 37 75 20 |

Hildakoak

- **Maite Paternain Alcalde.**
69 urte. 2024-09-25.
- **Arrate Zabala Etxeberria.**
68 urte. 2024-09-28.
- **Iñaki Agirregomezkorta Garitaonandia.**
92 urte. 2024-09-29.
- **Juanita Egiguren Larrañaga.**
94 urte. 2024-09-30.
- **Carmen Gutierrez Gutierrez.**
93 urte. 2024-10-01.
- **Candi Ibarzabal Kortaberria**
106 urte. 2024-10-02.



Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Graduazio Ekitaldia

Barixakuan Energia Berriztagarrien Ingeniaritza Graduako X. promozio eta Kontrola Sare Elektriko Adimentsu eta Sorkuntza Banatuan Unibertsitate Masterreko VII. promozioko titulatuena graduazio ekitaldia egin zen Eibarko Hezkuntza Esparruan. Unibertsitateko ordezkariekin batera, Jon Iraola alkatea eta Miren Artaraz Jaurlaritzako unibertsitate politika eta koordinazio zuzendaria izan ziren diplomak banatzeko ekitaldiaren buru.



1994. urtean jaiotako eibartarren ospakizuna

Argazkian ikusten dituzuen neska-mutilak ondo baino hobeto ibili ziren zapatuan, aurten 30 urte bete edo beteko dituztela ospatzeko antolatu zuten "kintoen jai". Talde argazkia egin, zerbait hartu eta bapo bazkaldu eta gero, arratsaldean txaranga eta guzti ibili ziren erdialdeko kaleetan, Latuna Bandoren musikak lagunduta.

Ekonomi Jardueren Gaineko Zerga hilaren 11ra arte ordaindu daitezke

Azaroaren 11n amaituko da 2024. Ekonomi Ihardueren Gaineko Zerga borondatez ordaintzeko epea. Helbideratuta ez dauden errezi-boak zortzi erakunde laguntzailleetako batean ordaindu daitezke, baita Internet bidez ere, Udal webguneko "Nire ordainketa" atebidetik.



...eta kitto! jai del eta, SexuBizi Gune Morea zerbitzua emango dute

SexuBizi-Gune Morea, sexu aholkularitza eta eraso matxisten aurkako babesa eskaintzen duen gune mugikorra, bihar ospatuko den ... eta kitto! Euskara Elkartearen jaiaren egongo da aurten. Arduradunek adierazi dutenez, urriaren 5etik 6ra bitarteko gauean egongo da martxan zerbitzua, Untzaga plazan, 00:00etatik 03:00etara. Gunera gerturatzeko arrazoiak ere azaldu dituzte: "Sexualitateari buruzko informazioa jaso nahi baduzu; kondoiak behar badituzu; aholkularitza profesionala behar baduzu; sexu indarkeriari buruzko informazioa jaso nahi baduzu; eta sexu erasorik pairatu baduzu, babes gune bat izango duzu".



Gazta Azoka egingo da domeka goizean Untzagan, eskualdeko ekoizleekin

Debabarreneko gazta azoka ospatuko da domeka goizean Untzagan. Asmo nagusia Debabarreneko artzaintza eta eskualdean ekoizten diren gazta ezberdinak herritarren artean ezagutzera ematea da. Eibarko Udalak antolatzen du urteroko azoka hau, Debemen Debabarreneko Landa Garapen Elkartearen eta azokan parte hartuko duten ekoizleen laguntzarekin batera. Goizeko 10:00etatik 14:00etara egingo den azokan eskualdeko gaz-

tagile hauek egongo dira: Mutrikuko Goienetxe baserriko Beñat Egaña, ardi-gaztarekin; Soraluzeko Egotza baserriko Nagore Martin, ahuntz-gaztarekin; eta Elgoibarko Mausitxa baserriko Iñaki Ansola, Idiazabal jatorri izendapena duen ardi-gaztarekin. Horiekin batera, Elgoibarko Lizagasar Sagartogixak ere hartuko du parte, sagarretik ekoizturiko produktuekin (sagar-doa, marmelada, sagar dultzea, sagar-ozpin ekologikoa...).

Eibarren enpresa-proiektu berriak garatzeko dirulaguntzak eska daitezke

Eibarren enpresa-proiektu berriak garatzeko dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago. Udalak hirugarrenez abiatu du Eibarren enpresa-proiektu berriak garatzen laguntzeko programa, herriaren jarduera ekonomiko eta industrial sustatzeko asmoz. Dirulaguntza eskatzeko, pertsona eta entitate eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte, besteak beste: lanlekua Eibarren edukitzea; EIJZn alta emanda egotea 2023ko azaroaren 1etik 2024ko urriaren 31ra bitartean; gutxienez lanpostu bat sortzea, sustatzailea barne; jarduera/enpresa alta emanda izatea gutxienez 12 hilabetez; eta 2024ko abenduaren 31 baino lehen dagokion gaikuntza-titulua aurkeztea Udalean. Etxebizitza batean edo enpresa-inkubagailu baten instalazioetan egiten diren jarduera ekonomikoek ere dagokion gaikuntza-titulua eskatu beharko dute. Eskabideak elektronikoki egin beharko dira Udalen web-orriaren bidez, eskatzen duten dokumentazioa aurkeztuta.

FUNEUSKADI
Single Services

TANATORIO EIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar:
Otaola, 27

Elbarko bulegoa:
Bidebarrieta, 20

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO FUNERARIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeriak.com

Elgoibar:
Kaxilon, s/n. SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Ermuako bulegoa:
Marqués de Valdespina, 16

Iñaki Aguirregomezcorta Garitaonandia

2024/09/29

TOLUA, haizea katarramixon eta Santa Agedaren koplak xuxurlatzen ari da. Urruneko frontoi batean pilota hotsa eta zigarro puruaren kea kiribilduta zeruko bidean doaz... Aldendua bai aitxa, baina inoiz ez ahaztua!





Ipuruako jaietan egindako zozketan sarituta izan diren zenbakiak eman dituzte

Asteburuan Ipuruako jaiak ospatu ziren, ehundaka lagunen parte-hartzearekin. Zalantza barik, arrakasta osoz itzuli dira jaiak auzora eta, jendeari esker ona azaltzeko, Ipuruako Jai Batzordeak hainbat sari banatuko ditu rifak erosi dituztenen artean. Zozketan lehen saria eskuratu duten zenbakiak hauek dira: 810, 685, 108, 283, 495, 724, 491, 645, 353, 624, 285, 119, 469, 316, 961, 664, 141, 296, 300, 992,

536, 162, 104, 770 eta 967. Eta, beste hauek, erreserbakoak: 910, 765, 360, 257, 709, 431, 184, 458, 186, 354, 77, 277, 821, 750, 619, 315, 632, 22, 260, 530, 209, 279, 972, 43 eta 717. Saritutako zenbakiren bat edukiz gero, Ipuruako Jai Batzordearekin harremanetan jarri behar da, 679708808 telefono zenbakira deitu edo ipuruakojaiak24@gmail.com helbidera idatzita.

Gure Balioak Sarietarako gazte eta gizarte ekintzaileen proiektu bila

Gaur da Gure Balioak Sarietarako proiektuak aurkezteko azken eguna. Aurten, ohiko “Bizi osoko ibilbidea” saria banatzeaz gain, beste bi kategoria sortu dituzte: “Gazte-ekintzailtza” eta “Gizarte-ekintzailtza”. Irabazleek Laboral Kutxak babestutako 2.000 euroko saria jasoko dute eskudirutan, beste zerbitzu batzuez gain. Hautagaiak aurkezteko inprimaki bat bete behar da, eta proiektua zein den azaldu. Formularioa Debegesaren webgunean dago eskuragarri, gainerako informazio guztiarekin (www.debegesa.eus).



Esperientzia Eskolarako matrikula martitzenera arte bete daiteke

Ikasten elkarteak antolatzen duen Debabarreneko Esperientzia Eskolak laster hasiko ditu 2024-25 ikasturteko klaseak, baina azken momentuan norbait animatuz gero, oraindik plaza batzuk geratzen direla jakinarazi dute ardura-dunek: “Esperientzia Eskola 55 urtetik gorakoei zuzenduta dago, eta bertan formazioa eta parte-hartzea izango ditugu ardatz”. Kurtso berria urriaren 22an hasiko da, eta

klaseak astean hirutan (martitzen, eguazten eta eguenetan) izango dira, goizez. Matrikula epea zabalik dago, urriaren 15era arte, eta izena emateko Pegora herritarren arretarako bulegora joan behar da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 695 788 936 telefono zenbakira deitu daiteke, edo bestela Interneten begiratu, Ikasten elkartearen web orrian (www.ikasten.info).



Nagusien oinarrizko eskubideak bete daitezela eskatu dute manifestazioan

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak egindako mobilizaziorako deiarekin bat eginez, Debarreneko Pentsionisten Taldeko berrehun bat lagunek manifestazioa egin zuten astelehenean, Eibarko kaleetan zehar. Eguerdian irten ziren Untzagatik, nagusien kolektiboarentzat eskatzen dituzten oinarrizko eskubideak betearaztea exijitzeko. Untzaga plazan amaitu zuten mobilizazioa, Adinekoen Nazioarteko Egunaren harira Gipuzkoako Pentsiodunek idatzitako komunikatua irakurrita (**argazki-**

bilduma eta **bideoa** ikusgai daude **www.etakitto.eus** webgunean).

Horrez gain, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak Herri Ekimen Legegilea erregistratu zuen aurreko astean Gasteizko Legebiltzarrean, “gutxieneko pentsioak gutxieneko soldataren parekoak izatera ailegatzeko, Eusko Legebiltzarrak araudi propioa eztabaidatu eta onartu dezala” eskatzen. Eibar eta inguruko herrietako pentsiodunak ere han egon ziren, ekimena babesteko egin zen kontzentrazio jendetsuan.

Bihar manifestazioa egingo da Bilbon, palestinar erresistentzia babesteko

Astelehenean, urriaren 7an beteko da urtea Palestinako herritarren kontrako erasoak hasi zirenetik, eta agintariek sarraskia gelditzeko ezer ez dutela egiten ikusita, hori salatzeke manifestazioa egingo da bihar Bilbon, 12:00etan, Jesusen Bihotzetik abiatuta. Eibartik joan nahi dutenentzat, autobusak Ego Gainetik (09:40/10:40ean) eta trenak Estaziotik (09:11/10:11ean) irtetzen direla gogorarazi dute. Bestalde, Eibarren ere manifestazioa egingo da, urriaren 13an, 12:00etan Untzagatik.



Timotea Zubizarreta Barrena

4. URTEURRENA
2020/10/07



“Beti gure bihotzean”
- ZURE FAMILIA -





Juan Jose Malvar Grande

2. URTEURRENA
2022/10/07

“Zure argia ez da inoiz amatatuko”

Maite zaitugu
- ETXEOAK -





Aginagako San Roman ermitaren inguruko pagadiak fama handia izan zuen, sasoi batean, pinuak sartzen hasi aurretik perretxiko asko egoten zelako. Argazkian, San Roman ermita, 1957ko azaroan hartutako irudian. INDALECIO OJANGUREN FUNTSA (GURE GIPUZKOA)

Perretxikoak beti leku berean irtetzen dira. “Perretxikotalarien” tranpak.

“Perretxikotalarien” tranpak

Roberto Isasi Jayo *Cayón*
(1935 – 2009)



Urkizun jaio zen 1935ean. Ehiztari eta arrantzale amorratua; perretxikotarako afizioa ere ume-umetatik izan zuen, aitarekin hasi eta ondoren bere kabuz lantzen joan zena. Naturarekin zerikusia duten gaiak oso ondo ezagutzen zituen eta bere azalpenak ezinbesteko izan ziren Eibarren egindako hainbat bilketa-lanetan, bereziki “Eibarko Hiztegi Etnografikoan”.

Roberto Isasiri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

(..) [Ez da... Tokirik ez dao, ba, honguak gehixago edo...?] Bai, hori bai! Danian... Hamen hongua igual, ta hor batez. Ta hurrenguan juan ta hamentxe beti. Beti toki baten! Bai, bai, hori bai, e! Beti toki bat. Gaur hartu badok, hurrengo egunian be jun hara, hantxe urtengo jok eta. Hantxe. Hantxe bertan. Ez han. Han ez. Hor. Bai. Ta urritxa be berdiña, e! Urritxa be hartu gaur hamen, hurrenguan be jun hara! Haraxe! Hori... Ehizian be berdiña. Ehizian be oillagorra topatzen badok hamen, hurrengo be hara. Hara ez. [Bai, ez? Tokixa...] Bai, euren tokixa dake! Hil, e? Hurrengo, bestia be haraxe etorriko da. Euren gauzak dakez... Ez bertara, holan, puntara, baiña ondora! Honetxen barruan, bai. Hori bada... beti “tak!” euren gauzara. Bai, hori bada (...)



BAZKIDE zertarako?

Euskara plazara eramateko



...eta kitto! Jaia

Urriko lehenengo zapatuan ospatzen den jaia, sagardoaren mundua zabaltzeaz gain, euskara plazara ekarri, euskal giroa sustatu, euskaraz berba egiteko espazioak sortu eta herriko giroa pizteko helburua duena.

Auzolana ere bada jai honen bereizgarrietakoa; 100 laguneko bueltan ibiltzen dira eguna antolatzen eta egunean bertan lan egiten: ... eta kitto! Euskara Elkartearen bazkideak, lagunak, berbalagunak, elkarte gastronomikoak...

zarelakogara

Egin zaitez bazkide!

“Osasuna zaintzen” izenarekin bataiatu ditugun ondorengo orrialdeotan, gai horrekin lotutako hainbat arlotako informazioa zuenganatzeaz aparte, adituen ekarpenak ere bildu ditugu. Horrela, pandemiaren ondorioz areagotu den gaixotasun mentalen estigma gainditzeko erronkari buruzko ahaleginarekin, zaintza sistemaren erregimenaren auziarekin (ekofeminismotik begiratura), sasoi honekin lotutako perretxikoen eta euren toxizitatearekin lotutako gaiarekin (Pedro Arrillaga mikologoak hitzaldia eskainiko du Jardunaldi Mikologikoetan), eta Jaione Yeregiren (elikaduraren inguruan) eta Iñaki Ugartebururen (kirola eta osasuna) kolaborazioekin osatu dugu zenbaki honetakoa. Ahaztu barik gurean martitzenean egin zen Pertsona Nagusien II. Topaketa, Euskofederpeneko presidente den Felix Elkoroiribe eibartarraren eskutik. Eutsi goiari!

Astelena frontoia nagusien topaleku

Astelena frontoia Pertsona Nagusien II. Topaketa jaso zuen martitzen goizean. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat tokitatik etorritako mila lagun inguru elkartu ziren bertan eta euren kezka nagusiak entzuteko aukera izan genuen. Gainera, erakunde ezberdinetako agintariak etorri ziren, Imanol Pradales lehendakariak azken unean huts egin zuen arren.

Durangon lehen edizioa egin ondoren, Eibarko Astelena frontoia hartu zuen martitzenean, urriaren 1ean, Pertsona Nagusien Nazioarteko Egunean, Pertsona Nagusien Topaketa hartzeko ardua. Felix Elkoroiribe eibartarra presidente den Euskofederpenek (Euskadiko Pertsona Nagusien Federazioa) antolatzen duen ekintza da eta, Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundietako ordezkarietz eta

Eibarko Udaleko agintariez gain, Euskadiko 230 gizarte-egoitza ordezkatzan dituzten hiru elkarte nagusietako (Bizkaiko Nagusiak, Gipuzkoako Agijupens eta Arabako Las Cuatro Torres) kideak batu zituen.

Aldarrikapenerako eguna izan zen Astelena frontoian bildu zirenentzat, baina hitzaldietatik haratago hainbat ekintza egin ziren. Hala nola, euskal dantzarekin eman zioten hasiera ekitaldiari, txistulariak egon ziren, batukada eta txa-

laparta doinuak entzun genituen, eta Amets Bete antzerki taldeko kideek zenbait sketch eskaini zituzten pertsona nagusien egunerokoan gertatzen diren kontuak umorearekin landuz. Gainera, topaketari amaiera emateko Untzagako Jubilatutako Etxeko Koroak hiru abesti kantatu zituen.

Urriaren 1eko manifestua

Euskofederpenek eta pertsona nagusien mugimenduan dagoen asoziazionismoa nabarmendu zuten



Euskadi guztitik etorritako milaka lagun elkartu ziren martitzenean Astelena frontoian. EKHI BELAR

agintariek, eta hain zuzen ere hori izan zen martitzenean agerian geratu zena. Izan ere, hiru probintziatako elkarteek euren indarra erakutsi zuten Astelena ia betez.

Elkoroiribek ordezkatu zituen oholdza gainean eta, umorez hainbat kontu botatzeaz gain, elkarteen aldarrikapenak agerian laga zituen. Euskofederpenek manifestua igorri zuen urriaren Ieko ekintzaren harira eta eibartarrak horietako batzuk aipatu zituen Astelengan.

Euskofederpenek bi modutan ospatu nahi zuen urriaren 1a: "Gizarteari egiten diogun ekarpenari

>>> Pertsona Nagusien II. Topaketa egin zen martitzenean, Pertsona Nagusien Nazioarteko egunean

balioa emanez eta guztion artean zaintza komunitate bat eraikitzeko lan eginez".

Horrela jarraitzen du manifestuak: "Dakizuenetz, gaurko gizartea gure ahaleginaren emaitza da. Eta ahalegin hori gutako askok praktikatzen dugu boluntariorizan. Jar-duera hori ez da lan-merkatuan

islatzen, eta bereziki garrantzitsua da adinekoek adinekoak zaintzeari dagokionez, bereziki emakumeek eta askotan Erkidegotik kanpoko emakumeek zaintzeari dagokionez. Ahalegin hori gehiago aitortu eta partekatu behar da".

Pertsona nagusiei eragiten dieten politiken plangintzan, prestaketan



• tartak
• enkarguak
• etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Itziar Astigarraga

Terapia Holistikoak eta Energetikoak:

- Masajea, Polaritatea terapia
- Reflexokinesia, Biomagnetika
- LNT (Terapia Energetiko-Kuantikoa)

ESKATU ORDUA: 619 44 60 66 Calbeton, 4 - 2. D (Uztzagako dorrea)



eta erabakietan modu aktiboan parte-hartzeko duten eskubidea aldarrikatzen dute. Horrez gain, honako eskubideak ere aldarrikatzen dituzte: pensio duinak jasotzea, belaunaldien arteko trukerako aukerak sortzea eta IKTetarako sarbidea erraztea.

Adinekoen beharretara egokitutako etxebizitzaren beharra aldarrikatzen dute, “gehienek etxean zahartu nahi dutelako”, diotenez. Hori posible ez balitz, egoitza publiko gehiago egotea eskatzen dute, “sektore hori pribatizatze-ko joera geldiarazteko, eta baita zaintzaileak profesionalizatzea ere”.

Eusko Jaurlaritzako gobernu-talde berriari, bestalde, eskaera berezia egiten diote: “Hiru lurraldeetako zaintzak modu positiboan bateratzea eta migrazio soziosanitarioaz hitz egiten entzun behar ez izatea. Eta, hauteskunde-programetan ez zegoenez, joan gaitezen sektore publiko baterantz, gizarte-zerbitzuen arteko koordinazio hobea, lehen mailako arreta indartua eta zaintza espezializatu egokiak eskainiko dituen”.

Asoziazionismoa eta boluntarioria ardatz, Euskofederpenek zera aldarrikatzen du: “Kon-tua da komunitateak bere kideak zaintzea, demokraziaren beraren oinarrian dagoen zerbait, indibidualismoaren eta merkaturaren pertsonen gainetik egotearen alde egiten dutenen aurka”.

FELIX ELKORIRIBE •
Euskofederpeneko presidentea

“Nagusientzako politikak zehazteko orduan parte hartu nahi dugu”

Zer moduz joan da Pertsona Nagusien II. Topaketa?

Ondo! Jende gehiago etortzea espero nuen, baina mila lagun inguru etorri dira. Nire asmoa Astelena frontoia beteta ikustea zen, baina goiko harmailetan hainbat toki hutsik geratu dira.

Zergatik izan da garrantzitsua topaketa Eibarren egitea?

Eibartarra naiz eta kanpoko jendeak Astelena frontoia (pilota-aren katedrala, horrek duen historiarekin) eta hiria ikustea nahi nuen. Izan ere, Errebalen piskolabisa egingo dugu eta erdigunea ezagutzeko aukera izango dute.

Nolako gauzak aipatu dituzue topaketan?

Zahartzea aktiboaren, parte-hartzearen, boluntarioriazaren, asoziazionismoaren inguruan jardun dugu, guretzat gauza garrantzitsuak direlako.



Zahartze aktiboaren eta bizitza-luzera berriaren inguruan berba egiten da gaur egun, baina zertaz ari dira zehazki?

Agintariekin batera nagusientzako politikak zehazteko orduan parte hartu nahi dugula aldarrikatzen dugu gauza horiekin. Hau da, ez dugu nahi politikak eginda etortzea, politika horien sorkuntzan egon nahi dugu.

Zentzu horretan, politikariek aintzat hartzen zaituztete?

Bai. Eibarko Udalean urte askoan egin dut lan eta badakit non egiten duten huts (barreak).

Hainbeste urtetan lan egin ondoren, ez zaizu martxarako gogo amaitzen?

Ez, ezta inolaz ere! Beti nago martxan, egunero. Mendira joaten naiz eta, denbora dudanean, gauza hauetan sartuta ibiltzen naiz.



50 urte

R.P.S. 219/18

elortza⁺

zuen zerbitzura

www.elortzabotika.com

ONLINE DENDA **online eskatu eta etxean jaso**

J. Gisasola, 18 943 20 61 00



**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

Ane Mendia
970 kol. zkoa.



INDIBA TERAPIAK
ARTIKULAZIO TENORO-
MANDIBULARREKO ARAZOAK
TRATAMENDU PERTSONALIZATUAK
K-STRETCH KLASEAK BAKARKA
HIPOPRESIBOAK ETA FISIOTERAPIA
OROKORREAN
ERGONOMIA HOBETZEKO KLASE
PERTSONALIZATUAK



Arragueta, 20
943 530642

ane_mendia@hotmail.com

Gaixotasun mentalen estigma gainditzeko erronkaren aurrean

Osasun mentalak gero eta garrantzi handiagoa hartu du gure gaur egungo gizartean, ongizatearen funtsezko alderdi horren garrantzia nabarmentzen duten joera globalen isla. Estresak, ziurgabetasunak eta eguneroko bizitzako aldaketa azkarrek markatutako testuinguru batean, osasun mentalaren arreta ez da jada gai marjinala, baizik eta lehentasunezkoa, bai erakunde publikoentzat baita herritarrentzat ere.

Berriki kaleratu dituzten txostenen arabera, bost euskaldunetik batek buru-nahasteren bat izan du bizitzan zehar. Nahasmendu ohikoak antsietatea, depresioa eta estresa dira, kasu askotan laneko prekaritatea, isolamendu soziala edo COVID-19 pandemiaren eragina bezalako faktoreekin lotutakoak. Egoera horren ondorioz, osasun mentaleko zerbitzuen eskaria handitu egin da euskal osasun-sistema publikoan zein eremu pribatuan.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak osasun publikoko larrialdi gisa identifikatu du joera hori. Arreta



psikologikoa edo psikiatrikoa eskatzen duten pertsonen kopuruak gora egin duenez, estrategia berriak ezarri dira, gero eta handiagoa den eskaerari aurre egiteko, tratamenduetarako sarbide azkarrak eta eraginkorra bermatzeko helburuarekin.

Pandemiaren ondorioak

COVID-19aren pandemiak eragin suntsitzailea izan zuen pertsona askoren osasun mentalean. Konfinamenduak, kutsatzeko beldurrak, pertsona maiteen galerek eta zailtasun ekonomikoek lehendik zeuden egoerak larriagotu zituzten, eta arreta psikologikorako behar be-

Ana Oiarzun Zabaleta

- PSIKOLOGOIA
- SEXOLOGOIA
- BIKOTEEN BITARTEKARITZA

635 746 250 Urkizu Pasealekua, 7

sustrai

OSASUN ERAGINKORRA
& ADARREKUTUAK

**PSIKOLOGIA
ZERBITZUA**
Eibarren eta OnLine

Lehenengo salo informatiboa doan

Isasi, 28
698 913 967 / sustrai.info@gmail.com / <https://sustraizentroa.com>



Azken urte hauetan antsietate eta depresio kasuak asko igo dira belaunaldi gazteen artean. Gizartearen presioa, sare sozialen gehiegizko erabilera, horien bidez erakusten den errealitate desitxuratua... ongizate psikologikoa arriskuan ipini dezaketen faktoreetako batzuk dira.

riak sortu zituzten. Gurean, Espainiako eta munduko beste eskualde batzuetan bezala, nabarmen igo dira antsietatearen, depresioaren eta trauma osteko estresaren sintomak, eta bereziki eragin die talde kalteberei, hala nola adinekoei, gazteei eta gaixotasun kronikoak dituzten pertsoneri.

Euskadiko erronka nagusietako bat, beste gizarte askotan bezala, gaixotasun mentalen inguruko estigma da oraindik ere. Gizarte-sentsibilizazioan aurrerapausoak eman dira, baina oraindik ere oztopo kulturalak daude, eta oztopo horiek zaildu egiten dute pertsona askok laguntza profesionala bi-

latzea. Berezi, gizezkoen eta adinekoei kostatzen zaie gehien beraien arazo emozionalen buruz argi eta garbi hitz egitea, "ahulak" edo "kalteberak" izango diren beldur direlako.

Gainera, bizitza modernoaren bizkortzea, lehiakortasuna eta teknologiaren eta sare sozialen gehiegizko erabilerak eragindako deskonexio soziala pertsona askoren ongizate psikologikoa eragin negatiboa duten faktoreak dira. Ildo horretan, belaunaldi gazteenek daukate arrisku gehien, antsietate eta depresio maila handiak baitituzte, kasu askotan gizarte-presioaren eta ingurune digital ho-

riek sor ditzaketen itzaropen ez oso errealisten eraginez.

Komunitatearen eta laguntza-sareen zeregina

Gure gizartearen, komunitatea eguneroko bizitzako funtsezko elementua izan da beti, eta osasun mentalaren aldeko borrokan, gizarte-laguntzako sareak faktore erabakigarriak direla erakutsi dute. Senideen, lagunaren eta bizilagunen arteko laguntzari esker, bai eta osasun mentalaren arloan lan egiten duten elkarten eta kolektiboen lanari esker ere, pertsona askok aurkitu dute zailtasunei aurre egiteko beharrezko babesa.

GONZALEZ DE MENDIBIL

**PSIKOLOGIA
PSIKOTERAPIA**

HAUR, NERABE ETA HELDUENGANAKO
ARRETA PSIKOLOGIKOA

www.gonzalezdemendibilpsikologia.com
Toribio Etxebarria, 5, 1-C 623 45 31 95

Mela Villar
R. de Hinojosa **PSIKOLOGOA**

HELDUAK, NERABEAK ETA HAURRAK
Antsietate, depresio eta dolu tratamenduak,
krisi pertsonal egoerak, bikote-arazoak...

Bidebarrieta, 6 - 1. ezk. villar.mela@gmail.com
670 400 177 www.melavillar.com



JAIONE YEREGI

Ikasturte berriaren atarian zer hausnartu eta zer aldatu

Estatu mailan baino egoera hobea dugun arren, Euskal Herriko haurren gizentasun tasa geroz eta altuagoa da. Zer egiten dugu gaizki? Presaka bizi gara, eta gurasoon denbora faltak haurren elikaduran eragina du.

Garrantzi handia dauka eta denbora eskaini behar diogu menuak planifikatzeari, elikagai osasuntsuak erosteari, elikagaiak elkarrekin prestatzeari....

Denbora falta eta presak aitzakitza hartuta, erosketa eredu ere asko aldatu da. Elikagai prozesatuak egunero kontsumitzen dira etxe askotan. Horiek balio nutritibo gutxi, eta azukre eta gantz asko izaten dute, eta ondorioz, haurrek hartu beharko luketena baino 3-4 aldiz azukre gehiago jan ohi dute. Publizitateak eta marketinak ere zeresana izaten du horretan. Iragarkiek gehienetan produktuen alderdi positiboa azpimarratzen dute, kaltegarriak diren osagaiak ezkutatu. Hala, haur txikien lehenengo papillak, jogurtak edo gailetak ezinbestekoak eta osasungarriak balira bezala saltzen dizkigute, eta, nahi gabe, txikitatik azukre mordoa ematen diegu. Koxkorragoak direnean ere, egunero kontsumitzen dituzte opil industrialak, zuku eta batido komertzialak, gailetak... betiko fruta eta ogitartekoa baztertuz.

Aipatu beharreko beste puntu garrantzitsu bat erotasunez josita bizi garela da. Ariketa fisiko gutxi egiten dute haurrek eta pantailen aurrean ordu asko pasatzen dituzte. Horregatik, oso garrantzitsua da jolas aktiboa bultzatzea umeen artean, eskoletan nahiz etxean. Gurasook ere badugu zer hobetua alderdi horretan, pantaila bat eskaintzea baino osasuntsuagoa baita seme-alabei gure denbora eskaintzea.

Bestalde, faktore emozionala eta haurren elikadura elkarri lotuta daude. Estresa, antsietatea, presioa edo asperraldia kudeatzen ez dakiten haurrek ohitura txarrak hartzeko joera handiagoa izaten dute. Garrantzitsua da helduok haurren bidelagun izatea sentimendu horiek bideratzen erakusteko. Mahai bueltan familiak pasatzen duen denbora aproposa da horretarako.

Piramide nutrizionala edo elikagaien gurgila tresna garrantzitsuak ditugu gauzak ulertu eta ondo egiten hasi nahi badugu. Baina kontzientzia da landu behar duguna. Hori lortzen badugu, fresko gehiago eta enbasatu gutxiago erosiko dugu, sukaldean denbora gehiago pasako dugu, mahaian elkarrekin eseriko gara, kirol gehiago egingo dugu haurrekin, egarria dutenean ura emango diegu, eta erosketak egiterakoan informazio nutrizionala irakurri eta kritikoagoak izango gara. Hori da bidea!

“Presaka bizi gara, eta gurasoon denbora faltak haurren elikaduran eragina du”

Euskaraz dastatu

Bihar, urriak 5, ...eta kitto! Jaia (lehengo Sagardo Eguna) ospatuko dugu Eibarren ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Beti bezala, jai giroan eta herritarrekin batera, euskara erdigunera eraman eta elkarrekin musikaz zein sagardoaz gozatzeko aukera paregabea izango dugu.

Sagardo-dastaketa soil bat baino gehiago eskaini nahi dio ...eta kitto!-k herriari: euskal giroa sustatu, euskaraz berba egiteko espazioak eskaini eta herriko giroa piztu nahi baitu elkarteak.

Berrikuntza moduan, aurten jaia luzatuko du ...eta kitto!-k, elektrotxarangaren laguntzarekin, erdigunea ez ezik, gainerako kaleak ere euskaraz beteko ditu-eta.



URRIAK 5 (zapatua) - UNTZAGA PLAZAN





Goiz eta arratsaldeko saioetan banatuko da 29. edizio hau ere: eguerdiko 12:00etatik 14:30era arte lehenengoa eta 19:00etan hasi eta sagardoa agortu arte bazkal ostekoa. Aurtun Bereziartua, Lizagasar, Zabala, Saizar eta Oyarbide-Zabalegui sagardotegietatik ekarritako sagardoa dastatzeko aukera izango da.



Musika Eskolako Marisol Arrillagak eta bere ikasleak eta Asier Osoro txalapartariak girotuko dute goiza musikarekin. Naia Fernandezek botako du irrintzia. Aurtengo berrikuntza moduan, Patxangoi elektrotxarangak girotuko du iluntzea, eta egun osoan Photocalla egongo da.



Tiketak 10 eurotan salduko dira (edalontzia + zapia + pintxo), eta pintxoak soilik nahi dutenentzat 2 euroko tiketak egongo dira.



Sagardoa egiteko prozesua bertatik bertara ezagutu nahi duenak dolarea izango du ikusgai (sagarrak prentsatu eta ekoizteko tresna) eta, nola ez, kirkoketarekin sagarrak txikitzeo aukera izango da.



ZALOA URAIN • Musikaria

“Oso eskertuta nago omenaldiagatik, bihotzez”

ELKARRIZKETA
OSOA

Zaloe Urain Kokein taldeko abeslaria omenduko dute aurten ...eta kitto! Jaian. Oholtza gainean 25 urte bete ditu aurten musikari eibartarrak, beti euskararen alde, eta ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean izan dugu hainbatetan. Horrela, bihar ondo merezitako omenaldia jasoko du Untzagan, 12:00etan, udaletxeko balkoitik jaiari hasiera emango dion adar-soinua entzun ondoren.



Omenaldiarekin hunkituta agertu da Zaloe Urain. EKHI BELAR

Zelan hartu duzu ...eta kitto! Jaian omendua izatea?

Oso eskertuta nago omenaldia jasotzeagatik, bihotzez. Hasiera batean txundituta sentitu nintzen. Pentsatzen duzu ez duzula hainbeste egin, ez duzula ezer berezirik egin omendua izateko. Azkenean, egin ditudan gauzak bihotzez egin ditut eta nahiko errazak egin zaizkit. Bestalde, oso gauza polita da omenaldia jasotzea. Geure buruari ez diogu baloratzen egindako gauza asko eta oso polita iruditu zait hori sentitzea. Hau da, batzuentzat egindako gauzek pisua izan dutela ikustea.

Modu bereziren batean ospatuko duzu omenaldia?

Familian. Hain justu ere amaren urtebetetzea da eta gurasoak omenaldira etorriko dira. Beraz, goxo-goxo ospatuko dut. Seguru aski hunkitu egingo naiz, malkoak ere irtengo dira, horretarako erraztasuna daukat-eta.

Arrazoi asko daude omenaldia jasotzeko, baina horietako bat ...eta kitto! Euskara Elkartearekin egin duzun elkarlana da. Nola bizi izan duzu zuk harreman hori?

Omenaldiaren berri jaso nuenean, urte hauetan guztietan ...eta kitto!-rekin batera eduki dudana ibilbidea gogoratzen hasi nintzen. Konturatu gabe, urte pila batean elkarri lotuta ibili gara. Gaztetan, ...eta kitto! aldizkariaren hasieran uste dut, aldizkaria banatu nuen. Horrekin lotuta, 2018an, ...eta kitto! Euskara Elkartearen 25. urteurrena ospatzeko Coliseo antzokian Miren Narbaizarekin eta nire alabarekin eskaini genuen emanaldian, komentatu genuen gutako bakoitzak ...eta kitto!-rekin lotura izan zuela eta, hainbeste urteren ondoren, bertan geundela berriz elkartearekin zerbait egiten. Oso polita izan zen. Bestalde, musikalki egiten ditudan gauzen islada ere egin duzue askotan eta asko eskertzen da. Horrez gain, ...eta kitto!-k herri mailan euskararen alde eta euskara sustatzeko egiten dituen lanketak nabarmentzekoak dira, Eibarren euskaraz bizitzeko eta egoteko aukerak ematen dituelako. Askotan ekintza horietan sartuta ibili naiz, hori ere gustoko dudalako. Beraz, ...eta kitto!-rekin elkarlan dezente egin dut eta espero dut hemen ez amaitzea.



Auzolana da jai honen bereizgarrietako bat; izan ere, 70 lagunen bueltan ibiltzen dira eguna antolatzen eta egunean bertan lan egiten: ...eta kitto! Euskara Elkarteko bazkideak, elkarte gastronomikoak, berbalagunak...



PHOTOCALLA eta Instagram LEHIAKETA

Aurten argazkiak ateratzeko Photocalla egongo da. Bertako argazkiekin Instagram Lehiaketan parte hartzeko aukera izango da.

Lehiaketaren oinarriak:

- 1- @gaztekitto Instagram kontuaren jarraitzaile izan.
- 2- Urriaren 5ean Untzagan jarriko dugun Photocallean argazkia atera.

- 3- Argazkia Instagramera igo. Ezinbestekoa

@gaztekitto etiketatzea.

Argazki originalenaren egileak txorizoa, gazta eta sei sagardo botila jasoko ditu. Animatu eta parte hartu!

ZOZKETA

Urriaren 5ean bertan, iluntzean, **LUXUZKO ASTEBURUA** zozketatuko du ... eta kitto!-k. Egunean bertan ere egongo dira salgai rifak, euro baten. Oraingoan asteburu hori Gasteizen izango da: Hotel Silken Ciudad de Vitorian bi lagunentzako gaua eta armosua; afaria Gasteizko El Portalon jatetxean; bisita gidatua Santa Maria katedralera eta Andra Mari zuriaren dorrera; eta degustazio menua Andere jatetxean.

ILUNTZEAN...



PATXANGOI ELEKTROTCHARANGA



IÑAKI UGARTEBURU

2024. urteko joko olinpikoak

Uztailaren 29tik abuztuaren 4ra Parisen izan ginen, kirol ikuskizun paregabea zuzen zuzenean disfrutatzeke asmoz. Egiari zor, nahiko kritikoa izan nintzen sarreren erosketa prozesuarekin; luzea, astuna, sarrera garestiak...

Aurrekari horiek alde batera utzita, esan behar dizuet aste ikaragarri polita izan zela Parisen bizi izandakoa. Guk ikusi genituen lehiaketetan antolaketa bikaina izan dela esango nuke, maiztasun handiko garraio publikoa erabiliz bazter guztietara ailegatzeko aukera; aste osorako bonu bat erosita inongo gatazka-borroka edota zalapartarik ez dugu ikusi; instalazioetarako sarrera-irteerak ondo antolatuak. Esandakoa, gure ikuspegitik antolaketa bikaina.

Betidanik gustatu izan zait errugbia, eta Parisen Emakumeen errugbi zazpiko txapelketa ikusteko aukera izan genuen, 70.000 lagun Stade de Francen. Ederra da errugbi modalitate honen dinamismoa eta ikuskizuna! Niretzat emakumeen kirolean sekula ikusi dudana kirol ekitaldi jendetsuena. Ahaztezina!

Atletismoa ere ikusi ahal izan genuen Stade de Francen; munduko errekorrak, estadioa gainezka, oso polita.

Roland Garrosen ere izan ginen eta emakumeetan txapeldun geratu zena —Zheng Qinwen— ikusi genuen sailkapen fasean zailtasun handiak pasatzen bere partida irabazteko. Novak Djokovic ere ikusi genuen jokatzen; honek errazago irabazi zuen bere partida. Toki ederra Roland Garros!

Montmartren ere izan ginen, kaleko giro paregabea. Gizonezkoen txirindulari froga ikusi genuen eta Remco Evenepoelen erakustaldi berriaz disfrutatu genuen.

Eskubaloia, ur poloa, boleibola ere ikusi eta disfrutatu genituen. Astea sentsazio ederrarekin amaitu genuen, nahiko nekatuta, egunero 20 bat kilometro oinez egiten genituelako, eta frantsesen “grandeur” ospakizunekin ere nahiko nekatuta. Baina esandakoa, gure ustetan JJOO bikainak izan dira eta asko disfrutatzeke aukera eman digute.

“Astea sentsazio ederrarekin amaitu genuen, JJOO bikainak izan dira eta asko disfrutatzeke aukera eman digute”

Zaintza sistemaren erregimenaren auziari ekofeminismotik begiratzen

Zaintza sistemari buruz berba egiteko saioa antolatu dute Andretxean eguaztenerako. Marta Barba Gasso eta Mirene Begiristain Zubillaga izango dira euskaraz egingo den solasaldi horretako hizlariak, eta 18:00etatik aurrera “Zaintza sistemaren erregimenaren auzia ekofeminismotik” izenburuari jarraituta arituko dira berbetan. Bertaratzen direnekin batera gaiari heldu eta hausnarketa egitea da asmoa.



Zaaintza sistemaren ereduari buruzko eztabaida gori-gorian dago, aspalditik gainera. Urteetan isilpean gorde den arazoa gizarte osora zabaltzeko deitu zuten, hain zuzen ere azaroaren 30ean urtea beteko duen Greba Feminista Orokorra, “bizitzak erdigunera ekarriko dituen zaintza eskubide kolektiboa” aldarrikatzeko. Horren aurretik, 2023ko udaberrian, Euskal Herriko zaintza erregimena aztertzeke erradiografia osatu zuen Euskal Herriko Bilgune Feministak, eta bertan bildutako datuek agerian laga zituzten gaur egungo siste-

mak dauzkan akats eta gabeziak. Zerrenda luzea da, eta horrekin batera datuek argi laga zuten zaintza-lan gehienak emakumeek egin behar izaten dituztela, oso egoera prekarioan gainera. Horren aurrean “zaintzaren kulturaren beselako ulerkera baten alde” agertu ziren mugimendu feministako kideak. Erradiografia osatzeko bi premisa nagusi hauek hartu zituzten abiapuntutzat: “Bizitza duinak denontzat dira eskuragarri, edo ez dira inorentzat, beraz gure bizitza ona ezin daiteke beste baten zapalkuntza betiketozean oinarritu; eta bizitza duinak mugak ditu.



365 EGUN
IREKITA

goizeko 05:00etatik gaueko 00:00etara

- GUZTIZ EKIPATURIKO 900m²-ko gimnasioa
- INGURUNE PAREGABE batean giroturiko zentroa

Etor zaitez probatzera!

Matsaria, 32, 1-B
943 430 987



Marta Barba Gasso Soziologian lizentziatua eta Ikasketa Feministak eta Generokoetan doktorea; eta Mirene Begiristain Zubillaga, berriz, Ekonomian doktorea eta Agroekologian aditua. Biek hartuko dute parte eguaztanean egingo den saioan. EHU

Izan ere, sostengarria izan behar da lurraldearekiko eta, beraz, bu-ruaskitasunaren zein etengabeko hazkundearen engainutik aldendu eta bestelako balio batzuk jarri nahi ditugu erdigunean: justizia sozial eta ekologikoa, elkarrekikotasuna, aniztasunaren aitortza, eta zaintza kolektiboa”.

Zaintza nola ulertzen den, non-ren gainean jausten den, eta bertan ematen diren etenei buruz hitz egin daiteke. Izan ere, kontuan hartzen al dira baliabide naturalen erabilera gobernatzen duten legeak, horiek sostengatzen dituzten bizi-beharrak, lurraren zaintza lanetan

jarduten dutenen lan baldintzak, edota pertsonen zaintza lanetan beharrezkoak diren atsedendialak eta askatasun eskubideak? Horiek izango dira Andretxean egingo den solasaldi horretan aztertuko diren gaietako batzuk. Datorren asteko saiora etorriko den Mirene Begiristain Zubillaga agroekologian aditua da. Ekonomia ikasketak bukatzean, nazioarteko merkataritzaren eza-gutzan sakontzearekin batera, giza eskubideen eremuan lanean ibili zen. 1998. urteaz geroztik Euskal Herriko Unibertsitatean Ekonomia eta Enpresa Fakultatean hezkuntza eta ikerkuntzan jardun du.

Ekonomian doktorea, nekazaritza ekologikoko elikagaien merkaturatze gaiak izan ditu hizpide, beti ere Agroekologiaren ikuspegitik.

Eta Marta Barba Gasso, berriz, Soziologian lizentziatua da eta Ikasketa Feministak eta Generokoetan doktorea (UPV/EHU, 2021). Gaur egun EHUko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Sailean ikerlaria da. Antropologia feminista eta ingurugiro antropologia dira bere ikerketa eremuak, eta ugalketa eta bioteknologia, edo identitatea, elikadura eta nekazaritza bezalako gaiak landu ditu, besteak beste.



Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

RPS 7423

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I
Eibar 20600 Gipuzkoa
Tel.: 943 70 23 85
clinica@unzagodental.eus
www.unzagodental.eus

“Egokia da perretxiko espezie jakin batzuk hartzera mugatzea, esperimenturik egin gabe”

PEDRO ARRILLAGA • Mikologoa



Eibarko Klub Deportiboak XXIV. Jardunaldi Milogikoak antolatu ditu datozen egunotarako eta perretxikoen inguruko hainbat ekintza antolatu ditu. Besteak beste, Pedro Arrillaga Aranzadi Zientzia Elkarteko mikologo adituak perretxiko jangarrien eta horien antzeko perretxiko toxikoen inguruko hitzaldia eskainiko du astelehenean, hilak 7, 19:00etan, Deporren.

Arrillagak ‘Perretxikoak ete euren toxizitatea’ izeneko liburua kaleratu zuen iaz, perretxiko toxikoen inguruan ospitalei laguntza eskaintzeko asmoz. Izan ere, osasun zentroetatik sarritan deitzen diote bere jakinduria baliatuz intoxicazioak egon direnean lagutzeko.

Zeren inguruan jardungo duzu asteleheneko hitzaldian?

Garrantzitsua da perretxikoak jasotzen ari direnei esatea egokia dela perretxiko espezie jakin batzuk hartzera mugatzea, inongo esperimenturik egiten ibili gabe. Milaka perretxiko daude eta oraindik ez dugu ziur batzuk jan daitezkeen ala ez. Beraz, normalean biltzen diren perretxiko jangarrien eta horien antzeko perretxiko toxikoen arteko alderaketa egingo dut hitzaldian. Izan ere, ez da bakarrik garrantzitsua perretxiko jangarriak zeintzuk diren ezagutzea, baizik eta horien antzekoak izan arren toxikoak direnak ere. Horrela gertatzen dira intoxicazioak eta hortik joko dut hitzaldian. Batez ere, gehien ematen den intoxicazioa nabarmenduko dut: hiltzaile berdearena (*Amanita phalloides*).

Perretxikoen inguruan uste faltsu asko daude hedatuta?

Bai. Adibidez, haragi gozoa duten russula onddo generoko perretxiko guztiak jangarriak direla esan izan

da, baina frogatu da ez dela horrela eta gibeloliba, intoxicazio ugari sortzen dituen perretxikoa, toxikoa izan daitekeela erakutsi da. Ongi kozinatuta badago, jangarria da; baina kontsumitzen ditugun beste espezie asko bezala, gordinik jaten badugu, toxikoa da. Beste uste faltsu batzuk hauek dira: egurrezko takoietan hazten diren perretxikoak jangarriak direla, zelaietan hazten diren perretxikoekin berdin, perretxiko pozoitsu guztiek zilarrezko txanponak edo koilarak belzten dituztela (hiltzaile berdeak ez ditu belzten eta pozoitsuak da), bareek hozkatutako perretxikoak jangarriak direla, moztetakoan urdintzen diren onddo guztiak toxikoak direla, usain eta zapore atsegina duten perretxikoak jangarriak direla (hiltzaile berdeak jan dituztenek esan digute oso gozoak daudela, baina hilgarriak dira), egosiz gero perretxiko pozoitsuak jangarriak direla, bolba eta eratzuna duten perretxikoak bakarrik direla pozoitsuak (kuletoa edo *Amanita caesaren* kasuan uste hori okerra da, bolba eta eratzuna baititu eta jangarria baita), perretxikoen albotik suge bat pasatzen bada perretxikoa pozoitu egiten dela... Astakeria asko esaten da perretxikoen inguruan. Bestalde, uste ohi da landa eremuetan edo baserrietan bizi den edonork perretxikoen jakintza osoa duela, eta gerta daiteke horrela ez



Perretxiko jangarrien eta horien antzeko perretxiko toxikoen inguruan arituko da Arrillaga asteleheneko hitzaldian. ARANZADI

izatea. Beraz, ez fidatu ehuneko ehunean. Horrez gain, badago demaseko astakeriak egiten dituen jendea ere. Adibidez, apustuengatik perretxiko pozoitsuak jaten dituztenak, bikoteari perretxiko toxikoak ematen dizkienak zer gertatzen den ikusteko... Izugarria.

Gaur egun dagoen informazioarekin eta zuek egiten duzuen dibulgazio lanarekin, intoxikazio kasuak murriztu egin dira?

Urtero 200-300 intoxikazio gertatzen dira Espainia osoan. Gehienak intoxikazio txikiak izaten dira, baina dozena bat kasu inguru nahiko larriak izaten dira. Espainiako toki batzuetan jaitsi egin da intoxikazio kopurua. Gurean, adibidez, jendeak kultura mikologikoa du eta esaten zaionari jaramon egiten dio. Beste toki batzuetan, oster, esan daiteke aurkitzen duten edozein gauza jaten dutela. Batzuek uste dute, intoxikatzen badira, medikuek sendatuko dituztela eta kitto.

Intoxikazioak daudenean, zeintzuk izaten dira ohiko sintomak? Zenbat denbora pasatzen da sintomak igarri aurretik?

Espeziaren arabera da hori. Sindromeak bi modutan

banatzen dira: latentzia motzekoak (6 ordu artekoak) eta luzekoak (6 ordutik aurrerakoak). Orokorrean, latentzia motzekoak arazo gastrointestinalak, alergikoa edo horrelako sindrome sinpleak izaten dira, salbuespenak salbuespen. Bestalde, denbora luzeko intoxikazioak hepatotoxikoak izaten dira, salbuespenak salbuespen kasu horretan ere.

Perretxikoak jasotzeko orduan teknika jakin bati jarraitzea komeni da?

Bai, perretxikoak ez dira moztu behar, oso-osorik atera behar dira. Intoxikazio kasu gehienak perretxikoak moztu izanagatik gertatu dira. Adibidez, perretxikoak mozteagatik jendeak hiltzaile berdeak gibelurdinekin nahasten ditu.

Perretxiko ohikoenekin ere ezustekoak gerta daitezke, ezta? Irakurri dizugu gaizki kozinatutako shiitakeak ez direla gomendagarriak.

Bai, hori egia da. Shiitakeak gordinik janez gero, dermatitis flagelatu sor dezakete eta gorputza markaz beterik lagatzen dute. Ez da larria, baina tira. Beste perretxiko batzuek, gordinik janez gero, beherakoa edo tripako-mina sor dezakete.



Eraman nazazu zurekin. EKHI BELAR

Golik jaso gabeko talde bakarra maila nazionaleko guztien artean

2. RFEF Mailan jokatzen duen SD Eibarko bigarren taldea, orain arte Vitoria filiala zena, bakarra da maila nazionaleko talde guztien artean oraindik golik jaso ez duena. Iñigo Perezek zuzentzen duen taldeak meritu handiagoa du jakinda denboraldi honetan mailaz igo duela; beraz, berria dela kategorian. Orain arte jokatutako bost jardunaldietan, Eibar B garaile izan da guztietan, bederatziko gol sartu eta bat bera ere jaso barik. Azken asteburukoa izan zen garaipen argiena, Unbeko beheko zelaian 4-0 garaitu baitzuen Alfaro. Anartz Amilibiak lortutako lehen golari jarraian Iker Zubiriak eskuratutako hat-tricka gehitu zitzaion. Unai Ayala atezai-



Aurreko denboraldi bikainari jarraipena eman diote orain arte maila berrian.

nak beste 90 minututan jarraitu nahiko du bere atletik baloirik jaso gabe datorren domekan, eguerdiko

12:00etan, Deportivo Aragon Real Zaragozaren bigarren ekipoaren zelaian jokatuko den partiduan.

Udazkentraila jokatuko da urriaren 13an

Kalamua Korrikalari Taldeak Udazkentraila 24a egingo du datorren asteko domekan. Deporrekoko mendi batzordeko talde horrek antolatutako proba goizeko 08:30ean abiatuko da egoitzaren aurretik. Guztira 15 kilometro izango dituen ibilbideak 540 metroko igoera metatua izango du, eta Elgoibarko Moru mendiraino joango dira. Zailtasun-mailari dagokionez, "erraztat" jo dute antolatzailleek eta guztia osatzeko bi ordu eta er-

ditik hiru ordura arteko tartea aurreikusten dute.

Trail irteera doakoa da eta edozeinek har dezake parte; hala ere, izena ematea (kalamuakorrikalari@taldea@gmail.com) beharrezkoa da, "antolaketa-lana errazteko". Mendian korrika egiteko oinetakoak, telefono mugikorra, zira, ura eta jateko zerbait eramatea gomendatzen da; baita, jakina, "mendian federatuta egotea edo norberak bere aseguruia izatea ere".



Bost talde izan ziren futbol egokitutako anexoko V. edizioan

Eibar Hiria Futbol Egokituaren V. Torneoa jokatuko den aurreko domeka goizean Ipuruan, eta bertan lehiatu zuten Euskal Herriko bost talde indartsuenek, bostak Genuine Ligan parte hartzen dutenak: Reala, Athletic, Osasuna, Alaves eta SD Eibar bera. SD Eibar Fundazioak antolatu zuen torneo.



Paleta eta pilota hartuko ditu zapatu goizeko Astelenako jaialdiak

Deportiboko pilota batzordeak aste-buru honetarako antolatutako jaialdia egunez aldatuko da eta, barixaku arratsalde izan beharrean, zapatu goizean egingo da. Gipuzkoako Binakako Txapelketako laugarren jardunaldiko hiru partidu hartuko ditu Astelenak oraingoan 09:00etatik aurrera: lehendabiziko biak paleta gomakoak eta azkena eskuz binakakoa. Guisasola-Sologaistua bikoteak Mundarro taldeko ordezkaria izango du aurkari eta, jarraian, Soria-Guinea eibartarrak Mutrikuko Danok Bat taldeko bikotea. Pilota partiduan, bestalde, Narvaiza-Conde eta Andoaingo Gaztelekuko bikotea izango dira nor baino nor.

Paleta goman lehen fasea amaitzeko oraindik beste bost jardunaldi falta badira ere, esku pilotaren kasuan azkenaurreko jardunaldia da oraingoa, erabakigarria ere izan daitekeena. Herriko beste pilotariak kanpoan jokatu dute: Hernanin, Usurbilen, Amezketa eta Getarian.



26 mendizale Cruz del Castillorako irteeran

Hasteko, lautada luze bat gurutzatu zuten Kantabria edo Toloñoko mendilerroa hurbiltzeko. Bide zabal eta eroso batek Cruz del Castillora (1.431 m.) eraman zituen. Bertatik batzuk, gainez gain, mendisokari ja-

rraituz iritsi ziren Bernedora. Beste batzuk, beheragotik, markaturiko bideari segituz heldu ziren toki berea. Hasieran lardaxka hartu zien eguraldiak gero eguzki xume batez lagundu zien mendizaleei.

Jardunaldi Mikologikoak asteburuan

Jardunaldi Mikologikoak antolatzen dituen Deporreko Mendi Batzordeak asteburu honetarako prestatu du 24. edizioa. Bada berritasunik ere: kanpora irten beharrean, oraingoan zapatuko umeen perretxikoen bilaketa Eibar inguruan izango da. Gero, 11:00etatik

aurrera sailkapena egingo dute Errebal Plazan. Domekan, toki berean, perretxikoen erakusketa eta dastaketa izango da, 10:30etik 16:00rak arte. Azkenik, astelehenan perretxikoen inguruko hitzaldia eskainiko du Aranzadiko Pedro Arrillagak Deporren.



Euskal Herriko 34. hiru-txirlo bola-joko txapelketa hasiko da bihar Aretxabaletan

Bola Jokorako Euskal Federazioak antolatzen duen txapelketak sei jardunaldi izango ditu, tartean finala, azken jardunaldian jokatu dena. Urriaren 5ean hasiko da eta azaroaren 23an amaituko, Markina-Xemeingo Lauzirikako bolatokian jokatu den finalarekin. Lehen jardunaldiaren ondoren, urriaren 12an ez da jokatu, baina gero

jarraian hurrengo zapatu guztietan izango dira tiraldiak: urriaren 19an Aramaioko Etxaguen, urriaren 26an Soraluzeko San Andres, azaroaren 9an Ziortza-Bolibarko Iruzubieta eta azaroaren 16an Aramaioko Untzillako bolatokiek hartuko dute bestelako tiraldiak, beti ere 17:00etan. Markinako finala eguerdiko 12:00etan jokatu da.

Mek Eibar Eskubaloiak Barakaldo hartuko du bihar Ipuruan

Fernando Fernandezek zuzentzen duen taldeak garaipen ezin argiagoa eskuratu zuen Pulporen aurrean (34-17). Jokatutako bi jardunaldietan gure herriko taldeak erakutsitako jokoarekin hurrengoan sailkapenean aurrera egitea espero daiteke, ligako hirugarrenean ere etxean jokatuko duelako, oraingoan Barakaldoren aurka. Hala ere, partidua ez da erraza izango: Mek Eibarrek lehen jardunaldian gol bakarrarengatik galdu bazuen Zaragozaren kantxan, bizkaitarrek ere 22-23 galdu zutelako aurkari berarekin azken asteburuan.



1. Nazional Mailako taldeak bigarrenez jokatu du jarraian Ipuruan.

Eibar Rugby Taldeak amore eman zuen Unben Getxoren aurrean

Azken asteburuan Unben jokatu-tako norgehiagokan, maila desberdinetan jokatzeko duten bi taldeen artekoa zela nabaritu arren, eibar-tarrek ez zioten aurpegiarik galdu partiduari eta amaierara arte bo-

rrokatu zuten, azken minutuetan nekea erakutsi bazuten ere. Azken emaitza 19-39koa izan zen, atsedena 7-24koarekin erretiratu eta gero. Bigarren zatia parekatuagoa izan zen, markagailuak 14-24 eta

19-29 emaitzekin erakutsi zuen bezala, azken minutuetan bizkaitarrek bi entsegu lortu arte. Eibar Rugbyk bost puntu ditu orain eta sailkapeneko hirugarren tokian dago, CRAT Rialta eta Getxoren atzetik.

Zikloturistek eta gaztetxoek bat egin zuten Bizikleta Egunean



Aurreko domekan Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutako Bizikleta Egunak goiz osoa jantzi zuten probak izan zituen. Goizeko 09:30ean 25 bat zikloturista bildu ziren, Untzagatik abiatuta, kostal-

derantz itzulia egiteko. 10:30etik aurrera txikiaren inskripzioa hasi zen eta 70en bueltan izan ziren izena eman zutenak. Txikiarentzako ginkana antolatu zen, Untzagatik hainbat buelta emateko eta,

jarraian, nagusiagoentzat ibilaldi txiki bat prestatu zen, Mekolara igo eta, bidegorritik, Amañara joan eta bueltatzeko. Jarraian zirkuitu bat antolatu zuten T. Etxebarria, Zuloagarren, Calbeton eta Untzaga kaleen artean, adin guztietakoek bizikletaz gozatzeko.

Egunari amaiera emateko, Eibarren ibilitako guztiak kostaldetik zetozen zikloturista helduekin batu ziren Anbulatorio parean, horrela tropel haundi batean guztiak Untzagara heltzeko. Ondoren, opariak zozketatu ziren, eta salda eta txorizoa banatu, egun zoragarriari amaiera bikaina emateko.



Eskrima klasikoa ezagutzera ematen aritu ziren Untzagan

Beste sasoi bateko irudiak ikusi ahal izan genituen zapatuan, Gasteizko CSE (Commilitium Sacrae Ensis) Eskrima Klubeko eta Donostiako Ignota Arma Aretoko kideek egindako eskrima klasikoaren erakustaldian. Armagintzaren Museoan ikusgai dagoen “Museoko ertz zorrotzak” erakusketa prestatzeaz arduratu ziren lagunek bertan ikus daitezkeen arma zuri, sable eta baioneten antzekoak diren erreplikak erabilia aritu ziren Untzagan, sasoi bakoitzari dagozkion arropak jantzita. Gainera, Iker Alejo eta Francisco Peña Castresana erakusketako komisarioek, arma horien erabilera zehatza bertatik bertara erakutsi, eta bakoitzaren azalpenak eman zituzten. **Bideoa gure YouTube kanalean** ikusi daiteke.



Berrehun lagunetik gora Euskaraldia ON! topaketetan

Berrehun lagunetik gora bildu zituen Coliseo antzokian egindako Euskaraldia ON! topaketak. Euskaraldiaren laugarren edizioa 2025eko maiatzaren 15etik 25era egingo da, eta herrien izen-ematea zabaldu berri dute www.euskaraldia.eus gunean. Norbanakoan izen-ematea aurrerago, 2025eko martxoan hasiko da.



Izan Inurri elkartearen bertso musikatu saio solidarioa

Izan Inurri elkartearen eskutik, “Tabuen kutxatik oholtzara” bertso saio musikatu solidarioa egingo da Coliseo antzokian urriaren 12an, 19:00etan hasita. Antolatzaileen berbetan, “minbiziaren errealitatea helarazteko eta normalizatzeko perspektiba feminista eta ahalduntzea oinarri duen euskarazko bertso saio musikatu izango da. Amaia Agirre gai-jartzailea, Alaia Martin, Ane Zuazubiskar, Oihana Iguaran eta Uxue Alberdi bertsolariak, eta Oihana Rodriguez eta Ixak Arruti musikariak izango ditugu gurekin. Horiekin batera, Iñurri elkarte osatzen duten emakumeak ere izango dira protagonista”. Sarrerak 3 eurotan jarri dira salgai, eta hiru modutan eskuratu daitezke: Interneten, Kutxabank zerbitzuaren webgunearen bitartez; Kutxabanken zerbitzu anitzeko kutxazain automatikoetan; edo Coliseoko leihatilan (astelehen eta barixakuetan, 17:30etik 19:30era).

Zapatuetako Tailerretarako aurrematrikula-epea zabaldu dute

Gaur zabaldu da aurrematrikula-epea 5 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzendutako zapatuetako tailerretan izena emateko. Arlo ezberdinetako tailerrak izango dira, adinaren arabera sailkatuak, eta bakoitzak bere egutegi eta ordutegia dauzka. Tailerretarako aurrematrikula online egin behar da, Udalaren webgunean dagoen formularioa beteta. Informazio guztia ere bertan kontsultatu daiteke. Aurtengo udazkenean eskainiko diren tailerrak hauek dira: Jolasak Familiaran, Birziklapena, Gomaeva, Urban Dance eta Magia.





Emakumeen aurkako indarkeriak azaleratzen

Aste honetan zabaldu dute “Lumineszentek, 63 historia emakumeen aurkako indarkeria ikusezinari buruz” erakusketa Andretxean. Izenburu bereko liburua oinarri dutela, Irantzu Pastor Ordokik eta Igone Mariezkurrena Fernandezek India, Palestina, Ameriketako Estatu Batuetako Lakota herriko eta Euskal Herriko hainbat emakume anonimoren istorioak kontatzen dizkigute erakusketa honetan: “Lau urtez su motelean egositako kazetaritza, etnografia eta argazkilaritza lan autogestionatua da, mimo eta errespetu handiz egindako entzute-prozesu baten azken emaitza”. Azaroaren 29ra arte ikusgai egongo den erakusketa horren bisita gidatua egongo dute itxi aurretik, azaroaren 28an, 18:00etan.



Urriaren 11n itzuliko da Barixakuak Jolasian auzoetara

...eta kitto! Euskara Elkartearen ekimena hiru auzotan izango da urriko hiru barixakutan: Urriaren 11n, eta estreinakoz, Egiguntarren kaleko parketxoan egongo dira jolasak, urriaren 18an Amañan, Torrekuako parkean, eta urriaren 25ean, berriz, Urkizuko parkean. 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat jolasak antolatuko ditu ...eta kitto!-k 17:00etatik 18:00etara, doan.



Idazlearekin Harixa Emoten literatur-tertuliak bueltan

Udako atsedenaldea eta gero, martitzenean egingo da Idazlearekin Harixa Emoten euskarazko irakurketa klubaren lehen saioa, 19:00etan, Portalea kultur etxean (1. batzartokian). Harkaitz Cano Jauregi etorriko da, *Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabilza oinez* album ilustratuari buruz irakurleekin hitz egitera. Eibarko Udal Liburutegiak ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean antolatzen duen jarduera horretan parte hartzea doakoa da, eta kurtso honetan ere Ainhoa Aldazabal arituko da tertuliak dinamizatzen.



Jokoan aritzearen arriskuez ohartarazteko ihes-gela

Ausazko jokoen arriskuez sentsibilizatze eta hezteko asmoz, Udalak “Zeure alde apustu egin” izeneko jarduera antolatu du, 'A 90 grados' elkartearekin batera. Ihes-gela edo escape-room honetan parte hartzeko 14 urtetik gora izan behar da. Lau laguneko taldeak osatuta jolastuko da. gaur 11:00etatik 15:00etara; bihar 11:00etatik 15:00etara eta 16:00etatik 22:00etara; eta domekan 11:00etatik 15:00etara eta 16:00etatik 21:00etara. Izena emateko, kartelean dagoen QR kodea eskaneatu eta erreserba egin beharko da.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|-----|
| | | | 8 | 4 | | | |
| | 7 | 2 | | | | | 5 |
| 4 | | 5 | | | 1 | 8 | |
| 1 | | | | | | | 2 9 |
| | 8 | 4 | 3 | | 5 | 1 | 6 |
| 5 | 6 | | | | | | 4 |
| | | 3 | 1 | | | 7 | 5 |
| | 4 | | | | | 2 | 1 |
| | | | 4 | 3 | | | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | 4 | 3 | 2 | 1 | 9 | 7 | 5 |
| 7 | 2 | 1 | 6 | 5 | 4 | 3 | 8 |
| 5 | 6 | 4 | 3 | 2 | 1 | 9 | 8 |
| 1 | 8 | 4 | 3 | 2 | 1 | 9 | 7 |
| 5 | 6 | 4 | 3 | 2 | 1 | 9 | 8 |
| 1 | 8 | 4 | 3 | 2 | 1 | 9 | 7 |
| 5 | 6 | 4 | 3 | 2 | 1 | 9 | 8 |
| 1 | 8 | 4 | 3 | 2 | 1 | 9 | 7 |

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 5 | 3 | | 7 | | | |
| | 7 | | | 5 | | 1 | |
| 2 | | | 4 | | | | 5 |
| | | 7 | 1 | 6 | 5 | | |
| 8 | | | | | | | 3 |
| | | | 8 | 2 | 3 | 7 | |
| 9 | | | | 2 | | | 7 |
| | | 1 | | 8 | | | 9 |
| | | | 9 | | | 4 | 5 |

soluzioa

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 1 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 1 | 2 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 1 | 2 | 3 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 7 | 8 | 9 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 8 | 9 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 9 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK

Urriak 4/10

BARIXAKUA 4

IHES GELA

16:00/22:00 "Zeure alde apustu egin", ausazko jokoaren arriskuez sensibilizatzea eta heztea helburu duen jarduera. 14 urtetik gorakoentzat. Lau laguneko taldeak. 25 minutu. Untzaga.

ZAPATUA 5

JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

11:00 Sailkatzeko perretxikoak eramateko aukera. Errebal Plazia.

IHES GELA

11:00/15:00 eta 16:00/22:00 "Zeure alde apustu egin", ausazko jokoaren arriskuez sensibilizatzea eta heztea helburu duen jarduera. 14 urtetik gorakoentzat. Lau pertsonako taldeak. 25 minutu. Untzaga.

...ETA KITTO! JAIA

12:00/14:30 eta 19:00 etatik aurrera ...eta kitto! Euskara Elkartearen jaia: Bereziartua, Lizagar, Zabala, Saizar eta Oyarbide-Zabalegui sagardotegietatik ekarritako sagardoak, pintxoak, musika, photocall-a... Untzaga.



DOMEKA 6

AZOKA

10:00/14:00 Debabarreneko Gazta Azoka. Untzaga.



IHES GELA

11:00/15:00 eta 16:00/21:00 "Zeure alde apustu egin", ausazko jokoaren arriskuez sensibilizatzea eta heztea helburu duen jarduera. 14 urtetik gorakoentzat. Lau pertsonako taldeak. 25 minutu. Untzaga.

JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

10:30/16:00 Sailkatzeko perretxikoak eramateko aukera. Errebal Plazia.



ASTELEHENA 7

JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

19:00 Hitzaldia, Aranzadi Zientzia Elkarteke Pedro Arrillagaren eskutik. Eibarko Klub Deportiboa.

MARTITZENA 8

LITERATURA

19:00 Idazlearekin Harixa Emoten euskarazko irakurketa kluba: Harkaitz Cano Jauregi, "Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabiltza oinez" album ilustratuari buruz. Dinamizatzailea: Ainhoa Aldazabal. Portalea (1. batzartokia).



EGUAZTENA 9

SOLASALDIA

18:00 "Zaintza sistemaren erregimenaren auzia ekofeministotik", Marta Barba Gasso eta Mirene Begiristain Zubillagaren eskutik. Euskaraz. Andretxea.



EGUENA 10

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emaleentzat. Untzaga jubilatutako etxea.

ERAKUSKETAK

Urriaren 6ra arte:

- **ARRATE KULTUR ELKARTEKO** bazkideen erakusketa kolektiboa. (Topalekua).

Urriaren 20ra arte:

- **"MNEMÓSINE"**, Carmen Palomeren artelanak. (Portalea).
- **"MUSEOKO ERTZ ZORROTZAK"** (Armagintzaren Museoa)

Azaroaren 29ra arte:


- **"LUMINISZENTEAK"**. (Andretxea).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **21ean:** 19:45, 22:30
- **22an:** 20:00
- **23an:** 19:30

“Reinas”
DRAMA



2024/Peru/104'
Zuzendaria: Klaudia Reynicke
Aktoreak: Abril Gjurinovic,
Luana Vega, Gonzalo Molina
90. urteak/Nerabearoa

2 ARETOA

- **21ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **22an:** 17:00, 20:00
- **23an:** 19:30

“Un desastre para siempre”
KOMEDIA



2024/AEB/100'
Zuzendaria: Roger Kumble
Aktoreak: Virginia Gardner,
Dylan Sprouse, Libe Barer
Erromantzea/Sekuela/Ezteiak

ANTZOKIA

- **21ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **22an:** 17:00 (1. Aretoa), 20:00
- **23an:** 19:30

“Isla perdida”
THRILERRA



2024/Espainia/128'
Zuzendaria: Fernando Trueba
Aktoreak: Matt Dillon, Aida
Folch, Juan Pablo Urrego
Drama/Erromantzea/Neo-noir

ANTZOKIA

- **21ean:** 17:00
- **22an:** 17:00

“Mi amigo el pingüino”
DRAMA



2024/AEB/98'
Zuzendaria: David Schurmann
Aktoreak: Jean Reno, Adriana
Barraza, Rocio Hernandez
Gertatutakoan oinarrituta

**DEBABARRENEKO
GAZTA AZOKA**
2024
URRIAK 6 (DOMEKA) Untzaga plazan
10:00etatik 14:00ak arte

- **EGOTZA (Sorakuzo):** ahuntz gazta
- **MAUSITXA (Elgoibar):** ardi gazta
- **GOIENETXE (Mutriku):** ardi gazta
- **LIZAGASAR (Elgoibar):** sagar zukua eta sagardoa



Izadi
LORADENDA
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Enkarguok etxero

leku berri bat Ego-Gain, 2
943 558728

TOPA-LEKU
taberna
egunero elkarrekin egoteko

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **BERNAT**, gaur 7 urte beteko dozuz eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Oinatz, Lur eta Naiken partez.



Zorionak, **DANELE!** Bixar 3 urte beteko dozuz eta. Segi zu zeu izaten, bikaiña zarelako. Pillo bat maite zaittugu.



Zorionak, **UNAITXO!** Hillaren 7xan 2 urte beteko dozuz eta. Musu haundi bat Irati, aitaxo eta amatxoren partez.



Zorionak, **JOL**, atzo 3 urte bete zenduaz eta. Musu haundi bat etxeko danon eta, batez be, Pabloren partez.



Zorionak, **JULEN!!!** Martitzenian 9 urte beteko dozuz eta! Musu bat famelixa guztiaren eta, batez be, Danel eta Markelen partez.



Zorionak, **URKO**, martitzenian 6 urte bete zenduaz eta! Patxito haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MARIA**, etxeko erregiñak 6 urte egingo dituu bixar eta. Patxo haundi bat amamaren eta etxekuen partez.



Zorionak, **ION!** Domekan pare bat urte egingo dozuz... Musu potolo bat etxekuen eta, batez be, Kimbon partez.



Zorionak, **MALEN!** Etxeko sorgintxuak bixar 3 urte beteko dituu eta! Segi beti bezain alai. Musu pillua famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **SUHAR!!** Etxeko txikitxuak hillaren 2xan urtetxua bete dau eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



IZEI Aranberri Zubizarreta: hurrengo martitzenian 9 urte! Illargiraño buelta eta buelta maite zaittugu!



Zorionak, **NIRA** eta **KAIET!** 4 eta 11 urte zoragarri zuekin. Maitte zaittueguna ez jaku barruan kabitzen. Musu zaku-kada bat famelixaren partez!



Zorionak, **MARINA** Gallastegi, hillaren 2xan urtiak egin zenduaz eta. Asko maite zaittuen famelixaren partez.



Zorionak, **JON** eta **ASIER!** Hillaren 6xan 10 eta 36 urte beteko dozuez eta. Musu haundi bana etxekuen eta, batez be, Mikelen partez.



Zorionak, **JULEN** (aurreko domekan 6 urte) eta **NIKOLE** (bixar 3 urte), urtiak betetzen dozuezelako. Ama, aita eta famelixa guztiaren partez!

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Etxea alokagai Eibar erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 643233843.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 631502177.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita as-teburuetan eta ospitalean ere. 632844780, 632768653.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. 643464307.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 686520473.
- Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile bezala, garbiketarako egiteko eta zaintzetarako. Esperientzia handia. 682737282.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. 642829497.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. 631462540.
- Emakume euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 634651895.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. 614197781.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta ospitalean ere. Orduka. 631425686.
- 21 urteko neska lanaldi partzialeko haurtzain lana egingo luke, bere ikasketekin uztartzeko. 631418235. Nora.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaindu eta pasiatzeko. 617571210.
- Neska eskaintzen da kudeaketa administratiboan edo arreta sozio-sanitarioan lan egiteko. 624121726.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632768653.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632844780.

4.2. Langile bila

- Emakumea behar da etxeko zereginak egiteko. Ezinbestekoa: autoa eta soziosanitario agiria. 688670009.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Filosofian graduatuak (ingelesko eta euskarazko C1 tituluduna) LH-ko eta DBH-ko klaseak ematen ditu. 688861740. Urko.
- Gitarra klaseak ematen dira, banaka edo taldeka: har-

monia, erritmoa, teknikak, inprobisazioa... Ia 10 urteko esperientzia. 633585077. La Manouche.

- Ingeleseko klaseak ematen dira. Maila guztiak. 699522514.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.4. Bestelakoak

- Elkartea gastronomikoa bazkideen bila. Lokal ederra. Roljokoak, belarra erre... Estaziño. badokelkartea@gmail.com



Cambridge Assessment English

Authorised Exam Centre

AUTHORISED CENTRE ES 438

EIBAR / DURANGO ABENDUKO DEIALDIA

MATRIKULA EPEA Urriaren 1etik 25era

| AZTERKETA | DATA | PREZIOA |
|--------------|--|----------|
| PET FS | Abenduak 14 (larunbata) azterketa osoa | 106 euro |
| FCE | Abenduak 14 (larunbata) azterketa osoa | 195 euro |
| FCE FS | Abenduak 14 (larunbata) azterketa osoa | 195 euro |
| CAE | Abenduak 14 (larunbata) azterketa osoa | 205 euro |

INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK

ARRASATE: Parlance (943 77 06 83) / Idiomaster (943 79 07 84) **BERGARA:** Espolon School of English (943 76 03 53)

EIBAR: Link Idiomas (943 20 39 59) / Target Schools of English (607 83 36 13)

ERMUA: Akerlei (943 17 66 32) **ELGOIBAR:** Key Academia de inglés (943 74 30 44) / ILS (943 74 40 40)

OÑATE: Sounds Great (943 78 20 91) **DEBA:** English Square (648 26 82 06) / North Street English (632 44 86 46)

DURANGO: Ibaizabal Ikastola (94 621 58 77) **MARKINA:** Lea Artibai Ikastetxea (94 616 90 02)

ELORRIO: Ontrack Hizkuntza (94 658 46 73) **BERRIZ:** Speak up (94 622 52 94)

ZUMAIA: Golden Gate (943 86 50 20) **MUTRIKU:** Gogoz (943 60 43 58)

ARRATE HOMES · EIBAR

PISU PILOTU BERRIA



Ez imajinatu, hurbildu eta utzi harrizten



Obra berriko etxebizitzak:

Garajea | Gimnasioa | Gourmet aretoa | Trastelekua

Neinor HOMES

900 11 00 22 · neinorhomes.com



EIBAR ◆ HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

Gure bokazioa, kalitatezko odontologia



Kontstatu hemen
gure webgune
eguneratua

📍 San Agustín Kalea, 4 behea ezkerre (Eibar)

☎ 943 537 076 · 688 884 808

🌐 www.eibarclinicadental.com

R.P.S. 72/19 MAITANE G. IÑIGUEZ - ODONTOLOGIAN LIZENTZIATUA

